

2021EKO AZAROAREN 25A

Manifestua Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna dela eta

Gaur, 2021eko azaroaren 25ean, Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna ospatzen dugu, eta egun horren inguruko ekintza eta jarduera guztiak urteko egun guztietara zabaltzea nahi dugu. Egunero egin behar da indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko borroka.

Hala ere, gero eta bizkorragoa eta aldakorragoa den mundu honetan, badira aldatu nahi ez duten egiturak, hala nola indarkeria matxisten mota, forma eta esparru guztiak eragiten dituzten kausak. Indarkeria mota horietatik, batzuk eboluzionatu egiten dute, beste batzuk sortu egiten dira eta beste batzuk aintzatetsi egiten dira, abenduaren 22ko 17/2020 Legetik aurrera gertatu den bezala. Lege horrek aldatu eta zabaldu egiten du apirilaren 24ko 5/2008 Legea, indarkeria matxista erauzteko emakumeen eskubideari buruzkoa.

Lege honen aldaketak indarkeria modu berrien onspena hartzen du barne, hala nola:

— **Indarkeria obstetrikoa eta sexu- eta ugalketa-eskubideen urraketa**; hau da, erabaki autonomoak eta informatuak hartzeko beharrezkoa den egiazko informazioa eskuratzea eragozteko edo zailtzeko erabiltzen den indarkeria. Osasun fisikoaren eta mentalaren esparruetan eragina izan dezake, sexu- eta ugalketa-osasuna barne, eta emakumeei beren praktika eta hobespen sexualei buruzko erabakiak hartzea eragotzi edo zaildu diezaieke, bai eta haien ugalketa eta hori gauzatzeko egoerak ere.

— **Bigarren mailako indarkeria**: indarkeria fisikoa edo psikologikoa, errepresaliak, irainak eta indarkeria matxistaren biktimak babesten dituzten pertsonen aurkako jazarpena. Indarkeria matxistaren egoeran dauden emakumeen prebentzioa, antzematea, arreta eskaintzea eta errekueratzea eragozten dituzten ekintzak biltzen ditu.

— **Indarkeria bikarioa**, hau da, seme-alaben aurka egiten den edozein indarkeria, amari kalte psikologikoa eragiteko xedearekin; beraz, indarkeria matxistaren testuinguruan seme-alabek jasotzen duten zuzeneko indarkeriaz gain, amari kalte egiteko helburua du, eta hori amatasunaren eta haurtzaroaren aurkako atentatu bihurtzen da.

— **Indarkeria digitala**: informazio- eta komunikazio-teknologiak, sare sozialen plataformak, webguneak edo foroak, posta elektronikoa eta berehalako mezularitzasistemak eta emakumeen duintasunari eta eskubideei eragiten dieten antzeko beste baliabide batzuk erabiliz, hein batean edo erabat, egindako, bultzatutako, zabaldutako edo larritutako sareko indarkeria matxista eta misoginiako ekintza guztiak. Jarduera horiek kalte psikologikoak eta are fisikoak eragiten dituzte; estereotipo matxistak indartzen dituzte; duintasuna eta ospea kaltetzen dituzte; emakumearen pribatutasunari eta jarduteko askatasunari eraso egiten diete; galera ekonomikoak eragiten dizkiote, parte-hartze politikoa eta adierazpen-askatasuna oztopatuz.

Indarkeria matxista digitala, aldi berean, indarkeria matxista mota eta esparru berri bat da. Tamalez, lan egitea premiazkoa da, zigorgabetasun handia baitu. Hainbat azterlanen arabera [adibidez, *Pikara Magazine* aldizkariak 2018an kaleratu zuena edo Amnistía Internacional-ek argitaratutakoa 2017an], emakumeen % 76k ziberjazarpena jasateko beldurrez aldatu dituzte beren jokabideak, eta % 26k egoera horri kasurik ez egitea erabaki du, segur aski, sistema ez delako ari erantzun eraginkorrek ematen indarkeria mota hori pairatzen duten emakumeek behar duten babesa eta segurtasuna bermatzeko.

Hala ere, ezin dugu ahaztu sare sozialak elkarri laguntzeko modu bat eta sororitatetresna ere badirela, eta indarkeria matxista mota asko salatzeko eta ikusarazteko bide bihur daitezkeela. Horregatik, beharrezkoa da ikuspegi feminista duten sare sozialak indartzea, sistema patriarkalean kontzientziatzeko eta bizirauteko tresna ere bihur daitezela.

Legearen aldaketa horrek indarkeria matxista gertatzen den zenbait eremu ere onartzen ditu:

— Indarkeria emakumeen **bizitza politikoaren esparruan eta eremu publikoan**. Kasu honetan, indarkeria matxista bizitza publikoko eta politikoko espazioetan gertatzen da, hala nola erakunde politikoetan eta administrazio publikoetan, alderdi politikoetan, komunikabideetan edo sare sozialetan.

— **Indarkeria erakunde-eremuan**, hau da, agintarien, langile publikoen eta edozein erakunde edo instituzio publikotako eragileek ekintzek eta omisioek osatzen dutena, zeinek politika publikoetarako sarbidea atzeratzea, oztopatzea edo eragozteak duten helburu, eta, orobat, Lege honek berak indarkeria matxistarik gabeko bizitza ziurtatzeko aitortzen dituen eskubideak aplikatu beharreko sektore-legerian jasotako kasuei jarraiki. Beraz, lege-tresna bat gehiago dugu horrelako indarkeriaren aurka lan egiteko.

Azkenik, **indarkeria sexuak** eragiten diguten inpaktua eta haserrea nabarmendu nahi ditugu, gogor astintzen gaituztelako. Hemendik, gaur, azaroak 25, gure laguntza eta enpatia osoa eman nahi diegu bizirik atera direnei eta haien inguruari. Ezin dugu onartu emakumeak beldurrez bizitzea, askatasun murriztuarekin, jada gizarte demokratiko eta libre batetik baztertuta egon beharko luketen sexu-eraso batzuen mehatxuengatik. Sexu-indarkeriak norbanakoen askatasunaren printzipioaren kontra doaz. Ildo horretatik, 17/2020 Legeak lehenengo aldiz jasotzen du baimen sexualaren kontzeptuaren definizioa, hau da, askatasun sexualaren eta duintasun pertsonalaren inguruko borondate espresua, sexu-praktikak egiteko bidea ematen duena eta hori bermatzen duena. Baimen hau askatasunetik eman behar da eta sexu-praktika osoan egon behar du. Ez dago baimenik erasotzaileak baldintza batzuk sortzen baditu edo, zuzenean edo zeharka, sexu-praktika bat ezartzen duen testuinguru batez baliatzen bada, emakumearen borondaterik gabe.

Indarkeria matxista guztiak identifikatzeko eta ikusarazteko prozesuan aurrera egin arren, bide luzea geratzen da gizartea indarkeria horien inguruan kontzientziatzeko; izan ere, erreakzioen barruan, ukazioa eta defentsa-jarrera izaten jarraitzen dute gizonak. Hala ere, gaur biolentzia matxistak erazteko funtsezkoak diren ekintza guztiak, banakakoak nahiz erkidegokoak, nabarmendu nahi ditugu. Bizirik suertatzen direnentzako laguntza- eta erresilientzia-iturri diren ekintzak, konpromisoa, inplikazioa, ausardia eta etika erakusten dutenak, eta autodeterminaziotik datozenak, edozein eraso matxistaren aurretik, bitartean eta ondoren “bakarrik ez daudela” sentiarazten dutenak.

Beharrezkoa da, beraz, lehendik dauden indarkeria matxista mota horien guztien aurka beharrezko jardunak artikulatzea eta koordinatzea, dagoeneko 17/2020 Legeak identifikatu eta babesten dituenak, eta indarkeria horiei guztiei aurre egiteko tresna eraginkorrak izatea; horren adibide da Katalunian indarkeria matxistei aurre egiteko protokolo berria, zeinak jarduera-zirkuituak egituratu behar dituen, bai tokiko batzordeetatik, bai Batzorde Nazionaletik.

Indarkeria matxista horien guztien aurrean, erronka handia dugu: egituraz eta prebentzioz jokatzeko eta herritar guztien eta lurralde guztien parte-hartzea izatea.

Emakumeek bizitza libre eta duinez gozatzeak, edozein lekutan eta esparrutan, gizarte demokratiko guztien eta haien erakundearen ardatza izan behar du.

Gizarte hau osatzen dugun guztion esku dago patriarkatua eta haren ideologia matxista desagerrarazteko duintasuna. Ez dugu ahaztu behar erantzukizun-sentimendua aktibatu eta lotu behar dela gizonengan, bakarka eta kolektiboki norberaren eta besteen portaera eta jarrera matxistak salatu eta haietatik urrundu daitezten. Sare eta espazio digitaletan eta gizarteko esparru guztietan askotan berrelikatzen den maskulinitasun tradizional eta

menderatzaileenaren aginduak ez dira bete beha. Erreferente berriak sortu behar ditugu arduratsuak, askeak, berdintasunezkoak, askotarikoak, integratzaileak eta zaintzaileak diren milaka maskulinitas arduratsu eraikitzeko.

Horrela bakarrik, aliantzak eta konplizitateak eratuz, eraiki ahal izango ditugu komunitate-eta baliabide-sare bat, osasun eta bizi-kalitatearen iturri izango direnak gizarte honetako emakume eta kolektibo zapaldu guztientzat. Afektuen eta zainketen kultura zabaldu behar dugu; seguruak, errespetuzkoak eta maitasunezkoak diren loturak behar ditugu, gure bizitzako esparru guztietan. bell hooks-ek dioenez, “maitasuna ekintza gisa hartzea, sentimendua baino gehiago dena, maitatzeko erantzukizuna onartzeko”; askatasunetik, berdintasunetik eta errespetutik maitatzea.

Indarkeria matxistarik gabeko bizitza baten alde!

